

RA1. ra-ra onomatopeia. Ebagitzearen onomatopeia.

2. ra onomatopeia. "Zeozer tarrastaka edo tiraka eruatia. *Hemen zestua ipiñi lurrian eta pagatxa tira ta rrra!, haraxe.*" (SB Eibetno)

RÁDIXO RÁDIO.1. rádixo, rádixua (a). izena. Irratia. • Radio. *Zela dauzken telebisiño, radio..., alde danetatik kasik errezaio erderaz.* Don. **2. rádixo, rádixua** (a). izena. Radio de rueda. *Onek bi radio eukitze zittuen bakoitzak. Piña bakoitzak bi radio.* Angel.

RAKA-RAKA onomatopeia. RIKI-RAKA. "Rascar, rallar. • Hazka egin, birrindu." (SB Eibetno)

RAKETISTA "Raketiakin jokatzeko zeben andrazko pelotarixak. Eibar inguruan mordua jua ziran jokatzera Madrid, Habana, Mexico edo Barcelonara, 1930-1965 bitartean gehixenbat." (SB Eibetno).

RÁMAL, rámalak (d). izena. Rendas de caballería. *Kabezeria, ta ara doianak pa ramalak.* Don.

RARÉZA, rarézak (c). izena. Arrarokeriak. • Rarezas. *Iñok ikututako ogirik ez jatia-ta, olakotxe rarezak zeuzkan.* Adinekoei sarri entzuten zaie. Pluralean, batik bat. Sin. **rarokería.**

RÁRO, rárua (a). adjektiboa. Raro, -a. Pertsonen zein gauzez. *Gizon ori raro utsa izan da beti./ Gauza raruak pasatzen die emen.* **euli zurixa baiño raruaua** esapidea. "Pertsona bereziez esan ohi da. • Perro verde. *Lagaixok horri bake-bakian, euli zurixa baiño raruagua dok eta.*" (Zuaz Deb).

RAROKERÍA, rarokerixía (b). izena. Arrarokeria. Sin. **raréza.**

RAROKÓTE, rarokotía (c). adjektiboa. Arraro samarra. • Rariponcio, -a. *Olako rarokote batekin ezkondu zan.*

RARÓTU (b). da aditza. Arrarotu. *Aspaldixan mutil ori ziero rarotuta dago.*

RAS onomatopeia. "Atrapar rápidamente algo. *Gero, ras!, hartu eta barrura, ras!, potekaria bete arte.*" (SB Eibetno)

RASÍAUI. rasíau (c). du aditza. Paretak porlanez eta planaz berdindu igeltseroak. • Rasear. *Rasiatzia ta pintatzia bakarrik falta jaku./ Llaniau baiño rasíau geixao esaten da, liso laga.* Don. **2. rasíau** (c). du aditza. Pasar el rasero. *Garixa rasíauta izeten da imillaunian, eta bestia torretuta.* Don. Ik. **erreséro.** **3. rasíau** (c). du aditza. Pelotan, gogor eta behe-behetik jo pelota. • Rasear la pelota. *Atzera etxuan joten, rasíau itte jua pelotia.* Ik. **kortáu, moztu.**

RASTEL, rastéla (d). izena. RESTEL, RESTREL. Ormigoien gainean josten diren kuadradiak, gero egurrezko lurra botatzeko. • Rastrel. *Ormigoian geñian rastelak esate ako. Jua txo./ Gero eitte geñuan restrela; oingo konstruiziotan porlanan geñian ipintzen dan listoe ari restela esaten jako; erderazko izena izango da akaso, baiña restrela esaten jako.* Benito. Rastelak egiteko haritza erabiltzen zen gehien, baina alertzea ere bai.

RAUSTA-RAUSTA onomatopeia. "Jatean ateratzen den hotsaren onomatopeia. *Gure bei orrek rausta-rausta emundako guztia jaten dau.*" (Lar Antz)

RE Ik. **ere.**

RÉBELDE, rébeldia (b). adjektiboa. Konformagaitza, bihurria. *Txikittan oso rebeldia zuan.*

REBÉNDERA, rebénderia (d). izena. Revendedor o comprador ambulante. *Olaxe billots-batzeilliei, rebenderei; orduan be bai, rebenderei. Ni txikixa nintzala, gaiñera, kotxeduna etorte i zan e, karroduna Osintxura.* Hil. Ik. **billotx-batzeille**.

REBOLUZÍÑO, reboluziñúa (b). izena. Revolución.

RÉFERE, réferia (d). izena. Eibarko zaharrek, eta baita bergarako askok ere REFERE deitzen diote futboleko arbitroari, edo behintzat gogoratzen dute hitza. • Arbitro. *Eibarren fubolai foballa esate jotsek eta arbitruai referia.*

REGÁTEO, regáteua (b). izena. Salerosketako tirabira. • Regateo. *Andra ori plazan beti regateo baten ibiltzen zonan./ Moruak baiño okerraua da regateuan.*

RÉGLA1. régla, régliá (b). izena. Regla. *Kartaboia ta reglia eruateko esan doste.* **2. régla, régliá** (b). izena. Menstruación. Sin. **illéko**.

REIGRÁS, reigrasa (c). izena. . lolium perenne.. Reigrás. Berez ere sortzen da baina belar mota hau ereinda hartu izan da ganajatekotarako.

RÉINETA, réinetia (b). izena. Errege-sagarra. • Reineta. *Aurten reinetiak asko emun dau.* Bi reineta klase ezagutu ditugu: REINETA ZURIXa, kolore berdekoa, eta REINETA BELTZa, kolore marroi ilunekoa. Sin.errezil sagar. Sin. **errége ságar**.

REJIDORE Ik. **errejidóre**.

REKOMENDAZIÑO, rekomendaziñúa (b). izena. Recomendación. *Aittasantuan rekomendaziñuakin be ezta salbauko!*

RÉKTO, réktua (c). adjektiboa. Zuzena; pertson ez erabilia. *Oso rektua zuan zuen aittajuna; rektogixa, aukeran.* Sin. **zuzen**.

RELOJERIXA, RELOJERO Ik. **erlojérixa, erlojéro**.

REPARTIDU Ik. **errepartídu**.

REPETEZÍÑO, repeteziñúa (c). izena. Herriko edo auzoko jaiak pasatu eta hurrengo igandean egiten den festa. • Repetición de fiesta. *Len, jaixak pasau arren, beti geratzen zan repeteziñua.*

REPÚBLIKA, repúblikia (c). izena. Errepublika, 1931-36 aroa, batik bat. *Da gu an gendela republikia zertu zan. Neikua negar ein zebe arek orduan. Nere aitzia izen zan erregei laguntzen, errege despeditzen estaziñuan, nausixekin joanda.* **Viva la república vasca, conforme eztaonak ein daixela ipurdian aska** esaera. "Hau esaten omen zuen Antzuolar xelebte batek." (Lar Antz).

REPUBLIKÁNO, -A, republikanúa, -ía (c). izena. Errepublikaren aldekoa.

Karlistak berriketa asko, liberalak diru asko; republikanuak okotzian bizar asko esaera.

"Karlista bero batek, berriz, esaera hau esan ohi zuen." (Lar <i>Antz</i>).

REZIBÍDU1. rezibidu (a). aditza. Recibir. *Eztot notifikaziñua rezibidu.* Sin. artu, jaso.**2. rezibidu** (c). aditza. Igeltseritzan, gauza bat, burdina bat edo egur bat, adibidez, porlanez hartu. *Lelengo porlanakin rezibidu eta gero sikatzen laga.*

RI-RA onomatopeia. RIS-RAS. "Igurtzixa. *Hartu espartzua, eta ris-ras!, garbittu arte.*" (SB Eibetno)

RIÑÓNA (d). izena. Baba zuri klasea, handi eta ederrena omen. • Variedad de alubia blanca, la mejor. *Riñona esaten jakuan; zuri-zurixa, luzia ta ederra.* Klem. Zera dio Candido Izagirrek: "*Zuri erreinduna: alubia blanca, la mejor (Ubera).*" (Izag Oñ, 101. o.). Gauza berdinez jardungo du nahiz eta guk *zuri riñona* jaso dugun. Etim.: gaztelerazko "riñon", duen formagatik.

RISKALO lk. **nískalo**.

RISTI-RASTA onomatopeia. "Igurtzi baiña indarrakin." (SB Eibetno). lk. **ri-ra**.

ROBILLÓE, -I, robillóia (c). izena. . Nískalo. lk. **piñátela**.

RODÁMENTU, rodámentua (b). izena. Rodamiento. *Badie Bergan iru rodamentu fabrika.* lk. **juegóorros**.

ROMANA lk. **errómana**.

ROSKA, róska (a). izena. Rosca. Sin. **ari. roskan egon** esapidea. Estar en rosca. Sin. **aríxan égon**.

ROSKAN EGON esapidea. Estar en rosca. Sin. **aríxan égon**.

RÚBIXO, -A, rúbixua, -ia (a). adjektiboa. -A. Rubio, -a.

RUÍNA, ruínia (a). izena. Ruina.

RUN-RUN onomatopeia. "Ronroneo del gato. *Sorbaldan katua*

RUSO, rúsua (a). izena. Ruso.

Izagirrek RUSUA deitzen dio ipar ekialdeko haize hotzari: "*Frantzí-iparra, frantzí-aizia: la rusia!*" (c). interjekzioa. Zenbait adinekok erabiltzen duen biraoa. *La Rusia, au jakin izan baneu bela etorriko nitzuan./ Mekauben la Rusia!, kendu adi paretik! LA INDIA! ere esaten da. La India!, beti lan eta lan eta kobrau zer?*